

---

# ASUN BARRENETXEA ESNAOLARI

---



Jone IDIAZABAL



1917ko Madalen egunean jaio zen Asuntxon Barrenetxea Esnaolarengana hurbildu nahi izan dut aurtengoan.

Rosa Esnaola Olaiz irakaslea, 1889ko abuztuaren 30ean, Goierriin, orduan "Villafranca de Oria" izena zuen herrian jaioa, bere ama izan zen. Aitona berriz goardia zibila zuen eta Andoain eta Zarautzen bizi ondoren 1901eko langileen egunean Erreterian asentatu ziren biak. Asuntxonon amona ez zegoen gustora senarraren ogibidearekin eta denbora baino lehenago lana utzi eta Yuteko fabrikan atezain bezela lanean hasteko konbentzitu zuen. Familia Erreterian kokatu eta Asuntxonon amak lehen maila Donostian eta goi maila Bilbon ikasi zituen. Oraindik ezkongai, klaseak ematen hasi zen Yuten, gero Eleizak Madalen kalean zuen etxe batetan eta azkenik 1924eko urriaren 9an Luzio Zalakain ibilbidean, Mariaren Bihotza eskola Rosak berak zabaldu zuen, beheko solairuan ikastetxea eta goikoan beraien etxebizitza egokitu zituelarik.

Garai hartan Asuntxonek 7 urte zituen, anai-arrebetatik zaharrena zen. Bera ez ezik, senide guztiak ere azkar asko hasi ziren eskolan amari laguntzen, Aita Gurea edo batuketak eta biderketak erakutsiz. 11 urte zituela aita hil zitzaizen eta 8 egun barru senide txikiena jaio zen, 6.na alegia. Ezbehar honen ondorio, etxe-ko lanak ere bere esku geratu ziren.

Amaren laguntzaz prestatu ondoren, 13 urtekin Donostian magisterioko ikasketak egiten hasi zen. Hezkuntza sistimaren aldaketak erdi-erdian harrapatu zuen, Batxilerra ezarri zuteneko hain zuzen. 14 urte zituzten gaztetxoei azterketa bat gainditu ezker batxilerra ez zien eginarazten. baina Asunek 14 urte uztailen egiten zituenez eta azterketa ekainean izan zenez ezin izan zuen egin. Horrelabada, irailean batxilerra egiten hasteko azterketa gainditu eta gero, Gobernuak urtean zehar 14 urte betetzen

---

zituztenak eta prestatuak zeuden gazteak plan zaharrean jarrai zezaketela esaten zuen lege berri bat atera zuen. Urrian, bigarren azterketa gainditu eta Magisterio ikasten hasi zen, eta 18 urte bete baino lehen karrera bukatua zuen.

Bere amak oposizioak atera behar zituela esaten zion, baina urtebete prestatu ondoren, gazteegia zela ere iruditzen zitzaion.

Honetan, Kaputxinoek ea haur batzuei, diruzainen semei hain zuzen, klaseak eman nahi zizkien galdetuz deitu zioten, barnetegi batetan sartu baino lehen idazketan eta irakurketan lehen urratsak ematen lagundu ahal izateko. Asuntxonek etxetik kanpoko bere lehen lana aurkitu zuen proposamena onartu zuenean. Goizetan ordu pare bat jarduten zuen beraiekin eta arratsaldetan Donostiara joaten zen oposizioak prestatzera.

1935eko egun batetan Donostiatik etxeruntz zetorrela bazkaltzeko garaian Alabergako sarrerara baino ezin izan zuen iritsi, Biteri kalera urgainezka bait zegoen. Hala ere ilundu baino lehen Donostiako suhiltzaileak agertu ziren eta Asunek beraiekin joatea erabaki zuen, beso azpiraino bustiz Kaputxinoseko eleizatik barrera. topoko bidea jarraituz, bere etxera heldu arte, nahiz eta etxean oherik aurkitu ez, amak etxera itzuli ezin izan zuten eskola-ko haurrei, babesa eman bait zien.

1936ko guda iritsi zen eta gehienak Ondarrura eta Bilbora joan zirenez, herria ia hutsik geratu zen, ondorioz, amaren ikastetxean ere lana asko gutxitu zen. Herrian gelditu zirenetatik libre zedunei, Asuntxon berari adibidez, Udaletxetik kuestazioak egiteko deitzen zioten, behartsuei janari plater bat emateko, e.a.



Asun eta Mariaren Bihotzako haurrak 1962 an

Auzo lanean egindako Tolare berriko eskola munizipaleko maixua herrira jaitsi zuten, umeak gelditzen ziren ia toki bakarrean, lanpostua hutsa geratuz. Zamalbide auzokoek protesta egin ondoren Udaletxetik lanpostua Asuntxoni eskeini zioten. Eta horrela hasi zen lanean, amaren baimenarekin noski, 19 urte zituelarik.

Baserritar ume hauek ez zekiten erderaz eta ikasketa elebidun bihurtu behar izan zuten, irakurketa eta idazketa uler zezaten itzuli egin behar izaten zien. Lehenik eta behin Jaunartzeko prestatu zituen. Gainera Ikasitakoa erraz ahazten zuten eta erein behar zelako, edo behiekin ibili behar zutelako, hango 40 umeek pipar asko egiten zuten.

Garai hartan pentsakera ezberdina zen, baserrian bizitzeko ezer gutxi nahikoa iruditzen zitzaaien, eskerrak gaur egun beste ikuspuntu bat dagoen. Udalak, dirua zuenean soldata bat eman-go ziola agindu zion, baina bitartean baserritarrak ordaintzen zien, eskola partikular bat balitz bezala nahiz eta hemen egin zituen 6 urteak jubilaziorako balio ez izan.

Noiz behinka, Artxipiko arrobira igotzen ziren kamioiean joaten zen, baina normalki bizikletan egiten zuen joan etorria, behin Isatseko malda frenorik gabe jeitsi zueneko gainditu ondoren. Hernaniruntz joaten zen kotxe bakarra pasatzen zenean, hura festa antolatzen omen zuten haurrek! Oso pozik ibili zen Asuntxon Zamalbideko eskola hartan, esperientzi ezinhobeak bizi izan zituen, nahiz eta bere burua urkatu zuen gizon haren ikuspeina ahaztu ez.

1942an 25 urte zituenean Juan Los Santos Garaialderekin ezkontzeko, ordurarteko lana utzi egin zuen. 18 eguneko ezkon bidaia egin zuten, Gasteiz, Madril, Balentzia, Bartzelona, Zaragoza eta Iruinetik barrena. Aurten urrezko eztaiak beteko lituzkete, duela hilabete gutxi bere senarra hil ez balitz. Los Santos Garaialde, gure herriko alkate izan zenaren aginpean, besteak beste, Renfera doan zubia egin zen eta diotenez frankismoarentzat komenigarriagoa zen beste agintari batekin ordezkatu zuten.

Ezkondutxo ondoren Asun bere amarekin eskolan hasi zen lanean. Eskola honetatik Errenteri erdia, baserritar ugari eta bai Oiarzun eta Lezotarrak ere ibili ziren. Garai haietan eskolara benetazko interesa zutenak joaten ziren, apretak eskuan, gehiago irauten zezaten.

Hainbeste errenteriar bere ikasle izanik makina bat anekdota kontatuko zizkidalakoan nengoen, baina izenik, ez zela azalduko promesapean ere bai, Asuntxonek bere golkoan gorde nahi izan ditu.

Orduan Errenterian beste eskola gehiago ere ba zen eta asko emakumeen gidaritzapean gainera: Dorotea eta Faustina Aierberena, Zezilia eta Maria Nistalena, Gurutzeko Alaben monjarena, Tellerialdekoa eta errekonozitu gabeko pare bat.

Jakin ezazue, duela urte gutxi Dorotea Aierbe zena elkarrizketatu nahi izan nuela baina ezetz esan zidala, eta zoritxarrez haren historia ere galdu dugu errenteriarrok.

Mariaren Bihotza eskolan neska-mutilak gela handi batetan zeuden. Oraingo malizirik ez omen zegoen, umeen inozentzia eta espontaneitatea gustatzen zitzaizkion, haur artean zebilen bitartean, digestioak ere hobeto egiten omen zituen! Bera lana bukatu eta zerbait jan ondoren, berriro ere lanean hasteko prestatu izaten zen eta gazteagoi berriz nekatuta bukatzen zutela entzuten omen zien.

Berak eskola denon etxetzat zuen eta bai izan ere. Haurrak zeinekin utzi ez zuten guraso batzuk, lanera zihoaztenean tinbrea jo eta Asuntxonon etxera eramaten zituzten eta gurasoak lanetik bueltatu arteko tartea ere han igarotzen zuten haurrek.

Lana ez zen klaseak ematea bakarrik, ebaluazio batzuk egin eta jarraipen bat eraman behar zen, kartillan ipiniz gero inspektoreak sina zezan. 14 urte arte, lanean hasi arte, ibiltzen ziren eskolan, asko ofizinetan hasten ziren lanean, beste batzuek berriz Miren Gezalaren akademian jarraitzen zituzten ikasketak. 12 urterekin frogak gainditu ezkerreko eskolaurreko agiria jaso zezaketan.



edo gainditzen ez bazuten ikasten ibiliak zirela adierazten zuena. Agiri honek bere garrantzia zuen, adibidez ilepaindegiko ikasketak egiteko beharrezkoa zen eta lehen aipaturiko errekonozitu gabeko eskoletan ez zituzten ematen.

Tellerialdekoek 7 urte bete arte ez zuten mutilik onartzen eta tarte horretan Asuntxonenean ibiltzen ziren. Baita Don Boskorako, apezgaitegirako edo institutorako ere prestatzen zituzten neska-mutilak.

Asunen ama 80 urte arte klaseak ematen aritu zen, azkeneko txikienekin nahi izaten zuen. M<sup>a</sup> Loreto eta M<sup>a</sup> Nieves iloba bikiak ere familiarako eskola honetan hasi ziren lanean. Lan asko egiten zuten, gainera klaseak ematerakoan bakarrik kobratzen zuten. Madalenetan, Aste Santuan eta Eguberrian egun batzuk besterik ez zuten isten.

1968ko urriaren 20an Asunen amari, irakaskuntzari 50 urte baino gehiago eskaini zion emakumeari, ikasle ohiak omenaldi bat eskaini zioten. Besteak beste berarekin ikasitako 8 apaizek meza eman zuten, eta Udaletxeko enparantzan Ereintzako haur dantza taldeak dantza herrikiokiak eskaini zizkioten.

1973an familiarako etxea saltzea erabaki zuten, baina inspektoreak eskola itxi baino lehen haurrei beste ikasleku bat aurkitu behar zitzaizela esan zieten. Gurasoei arazoa aurkeztu zieten seme-alabak nora bidali nahi zituzten galdetuz, jesterioak Asunek eta lankideek egingo zituztela. Eta 150 bat ikasleri tokia aurkitu zien, Biteri eskolan, Pio Barojan, "Cristobal de Gamon" zabaldu berrian eta Gurutzeko Alabek egokitu berria zuten eskolan. Horrela 30 urte pasa zitueneko eskolako ateak, 56 urteko adinarekin itxi zituen betirako.

Egun haietan egunkarian irakasle euskaldun bat behar zela ikusi zuen eta Ramon Mugika orduko alkatearengana jo zuen. Udaleko hezkuntza batzordean aurkeztu zen eta egun gutxi barru beraiek Asun aukeratu zutela, baina azken hitza delegazioak zuela esanaz deitu zioten. 15 egun baino lehen Urdaburu eskolaurreko lana berari ematea erabaki zuen Udal, Diputazio eta

Delegazioak osatzen zuten Patronatoak. Hemengo haurrak kanpotarrak ziren, 4-6 urte bitartekoak. 40 haurri egunero ordubete euskeraz irakasten 11 urte egin zituen, tarte horretan berriz Patronatoa desegin eta estatuaren eskutan geratu zen eskolaurrea.

1981eko uztailaren 20an bere ama hil zen.

1984ean berriz bere senarra gaixotzen hasi zen eta 67 urterekin jubilatzea erabaki zuen, nahiz eta legeak zioenez beste 3 urtetan lan egin zezakeen.

Ikasle batzuk Biteri eskolara sartzen ikusi zituenean izugarritzko pena sentitu eta erabat urduri jarri omen zen. Jubilatuta eta hilabetera berea izan balitz bezela zaindu zuen eskolaurreari bisita bat egin zion, baina izan zuen desilusioa zelata, ez zen gehiago bueltatu (gaur egun haur faltagatik itxita dago).

Hezkuntza, oraingoarekin konparatuz, oso ezberdin ikusten du Asunek noski. Lehen, asteko memorizatu egiten zen dena eta gero denboraren poderioz ulertzera iristen zen, haurrek ahalegin handiagoak egin behar zituzten, errespetu edo beldur gehiago zegoen. Gaur egun berriz, lana erraztua ematen zaie, liburu ikusgarriak dituzte...

Azken finean bi hezkuntza motak oso ezberdinak dira, baina argi dagoena da irakaskuntzarako bokazio izugarria behar dela, hori bai, berak 75 urterekin oraindik daukan burua, gazteagoek ez dugu.

Mundu guztiarekin, berezitasunik inorekin egin gabe, solasean airtzen den emakume honi, oraindik ere bizkortasuna dario; bere lanbidea betidanik maite izan duen eta maite duen exenplu, iaz bere ilobari eman zizkion matematikaseko klaseak.

Bejondeizula!!

Eta Asuntxon, Madalen egunean, zure egunean, nere eta aldizkari hau osatzen dugun guztion partetik, ZORIONIK BEROENAK!



Asuntxon bere ama eta ilobekin